

#### IV. Ikurriña eta Lauburua. Komententziako ezkontza?

*Aunque el lauburu era diferente de otros signos expresamente prohibidos (como la ikurriña o la palabra Euskadi)* (Santiago De Pablo EHU/UPV)

Sabino Aranak, biak ala biak, Ikurriña sortu eta Lauburuaren erabilera bultzatu zituen.

Alde batetik badauzkagu Nafarroako Bandera eta Ikurriña, euskal bandera "ofizial" legez munduan errepresentatzen gaituztenak, erdizka bada ere. Eta bestetik lauburua, maila ofizialik ez duen ikurra izan arren, euskaldun guztiok ordezkatzeko gaituela jakin badakigu.

Ezin ukatu hirurek, historia, sinbologia eta esanahi handia daukatela. Tamalez banaturik azaltzen zaizkigu bakoitza bere ibilbidean:

Hainbat lauburu aurki ditzakegu material desberdinetan zizelkaturik Euskal Herriko bazterretan:



Harrizko, egurrezko, urrezko zein zilarrezkoak.

Eta beste alde batetik, beste hainbeste Nafarroako Bandera eta Ikurriña eraikinetan zintzilik, kirol ospakizunetan edo dantzetan.

Udaletxeko balkoian jaietako ikurrintxoak Iruñeako jaietan, Bergaran edo Azpeitian:



Real-Athletic partidan atera zuten 1979 Ikurriña oraindik ofizialdu gabea, eta Osasunako zaleak Sadarren Nafarroako bandera ateratzen:



Ikurrin Dantza, edo Agintariena:



Egurrezko Ikurriñarik ez da aurkitu web-ean baina bai ordea, Ikurriñaren antzeko denaren Erresuma batuko Union Jack-arenak:



Hiru ikur hauen hainbat souvenirrak ere aurki ditzakegu. Banaka ikusita inongo loturarik antzematen ez zaielarik.

Giltzariak adibidez:



Ikurren banaketa horretaz jabe, 36-ko guda garaietatik hasita, izan dira Lauburua eta Ikurriña nolabait uztartuta azaltzeko grinak:

Adibidez Emakume Abertzale Batza (EAB). EAB-ko banderen masten puntan agertzen da lauburua. Argazkian 1934-an Ataunen:



*Gernikan ere, emakumeak, herri askotan bezala, politikoki antolatzen hasi ziren talde desberdinen inguruan. Hauen artean garrantzi handikoa izango da Emakume Abertzale Batza (nazionalistak). 1922an sortu zen Bilbon eta Gernikan 300 afiliatu baino gehiago izan zituelarik. Talde honek sorturiko jardueretan garrantzi handikoa Euzko Ikastola Batza izango da. Hala ere, Gernikan nagusitasuna, hezkuntza ez formalean oinarritutako ekimenek izango dute: dantza, kanta, antzerki, ibilaldi eta festen antolaketa. Guda garian EAB-k 28.500 emakume baino gehiago biltzen zituen herri ezberdinetan, taldearen egoitza, arropa tailer eta iheslarietarako aterpetxe bilakatuz. Gudaren amaierarekin, borrokarekin lotura handia izan zuten emakumeak atzerrira joan behar izan zuten.*

EAB-ren pina eta Euzko Gobernuaren pinak guda zibilean:




Orduztik izan dira eta badira, irudi donetsi bi hauen arteko uztarketa artistiko ugari:

1977ko Aberri Egunerako kartelean biak azaltzen dira:



Gaur egun ere, Ikurriña eta Lauburuaren uztarketa saiakera anitz aurki ditzakegu nonahi. Honatx adibide batzuk:

- Koloreetatik hasita: Gorria eta berdea nagusiki, zuri eta beltz txertoekin:





Kasualitatea agian, baina hain ezaguna dugun Euskal Produktuen logotipoarentzako kalitatearen K hizkia aukeratu da, nolabait bere lau besoekin:




Ikurriña eta Lauburua nolabait biak uztartuta makina bat adibide:







Euskaldunon imaginario kolektiboan Ikurriña eta Lauburua lotuta doazela nabari dezakegu, eta ondorioz Lauburuak Ikurrinean toki bat merezi lukeelakoan, agertzen dira diseinu ugari:



Bandera de una compañía nacionalista, establecido en el cuartel de Salaberri de Barakaldo 1936





.... badira Sabino Aranaren bi ikur kuttunenak uztartuz hainbat diseinu bitxi, baina eklektikoegia agian munduaren aurrean ordezkatzeko gaituen bandera nazional baterako?

Oroigarri eta apaingarrietatik haratago ez da behintzat horrenbestean zabaldu eta...



Gerra zibil aurreko burdin hesi bateko irudia:

<https://www.deia.eus/actualidad/2015/07/12/elorrio-lauburu-unico-5115062.html>

<https://mugalari.info/2015/07/14/urgen-a-la-conservacion-de-unas-verjas-jeltzales-de-la-fundacion-tytasa-de-elorrio-por-su-lauburu-e-lkurriña/>





## V. Historiaren garai berriak datozela

“Estamos en un fin de época y ante un cambio de paradigma” – José Antonio Álvarez Solís

“Euskadiko Gazteak 2020/21” Eusko Jaurlaritzako inkesta baten arabera, gazteen %80ak egungo gizarte ereduaren erreformaren alde daudela adierazten du:

Bizi garen gizarteari buruzko ondoko lau iritzietatik, zeinekin zatoz bat?								
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Politikan izandako interesa	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Handia + Nahikoa	Gutxi + Batere ez
Dagoen moduan ondo dago	0,9	0,5	1,3	1,2	0,4	1,2	0,5	1,5
Aldaketa txikiak eginez hobetu daiteke	<u>23,8</u>	20,0	27,4	30,2	24,7	16,1	15,9	32,3
Erreforma sakonak behar ditu	<u>57,8</u>	61,6	54,2	54,6	58,2	61,0	62,2	53,2
Zeharo aldatu behar da	16,2	17,1	15,3	12,3	15,7	20,6	20,9	11,1
Ed/Ed	1,3	0,7	1,8	1,7	1,0	1,0	0,5	1,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Euskadiko gazteak 2020/2021" txostenaren datuen aurrenekoa)

Munduan ere hainbat faktoreengatik, Big-Data, 5G, blockchain eta intelijentzia artifiziala barne, aldaketa sakona nabari da gizarte “digitalago” batera bidean. Unesco-ren arabera adibidez:

*Transformaciones sociales: La globalización, los cambios medioambientales y las crisis económicas y financieras están causando importantes transformaciones sociales que provocan el aumento de las desigualdades, la extrema pobreza, la exclusión y la negación de los derechos fundamentales. Estos cambios hacen necesarias soluciones innovadoras que respeten valores universales como la paz, la dignidad humana, la igualdad de género, la no violencia y la no discriminación. Los actores principales de las transformaciones sociales son los jóvenes, que se ven más afectados por estos cambios.*

Espainiako ministro ohi batek, “Cambio de era” bere liburuan Josep Piqué-k honela dio:

*¿Quiénes, cómo y cuándo protagonizarán la nueva estructura del poder mundial?*


*Ya bien entrado este siglo y teniendo en cuenta los acontecimientos a los que hemos asistido, es evidente que hay un cambio de era en marcha.*

*Este cambio de era, evidentemente, trae aparejada una transformación radical en los valores culturales e implica una serie de interrogantes acerca de cuáles serán los modelos políticos que se erijan en el futuro.*

*Josep Piqué, que ha conocido de primera mano algunos de los acontecimientos más importantes de esta metamorfosis, desentraña en este ensayo las claves básicas de ese proceso. Su relato, de carácter divulgativo, no está dirigido sólo a geoestrategas sino a todos los que se verán afectados, que somos, al fin y al cabo, todos nosotros.*

Aro Digital baten sartzen ari gara eta honek dakartzan aldaketa sozio-ekonomikora egokitzea besterik ez zaigu gelditzen euskaldun bezala bizirauteko.

Aldaketarekin batera jauzia egiteko, zapaltzen ari garen oinarria aztertu behar lehenbizi. Gaur egun banatuak gaude administratiboki eta juridikoki, ondorioz eragina du gure izanean. Egun hiru erkidegotan banatuta, ofizialak ditugun banderak honakoak dira:



Begiratu batean behintzat tamalez ez zaie nabaritzen amankomunean erlazio askorik dutenik. Ez da gutxiagorako ere. Hiru herrialdetan banatuta, legeak uzten digun heinean demokratikoki azalazten gara eta baditugu zorionez nolabaiteko autonomiak. Hauteskundeetako emaitzek askotariko biztanlegoa daukagula islatzen dute ordea.

Esaterako 2016 EAE-ko hauteskunde emaitzak, **%62-ko partehartzearekin:**


- EAJ-PNV %38
- EH Bildu %21
- Ahal Dugu %15
- PSE-EE %12
- PP %10
- Nafarroako Foru Erkidegoko hauteskunde emaitzak 2019, **%72-ko partehartzearekin:**
  - NA+ %37
  - PSN %21
  - Geroa Bai %17

- EH Bildu %15
- Podemos %5
- I-E(n) %3
- VOX%2

Eta hauen barnean beste hainbeste jatorritako biztanleak ditugu. Zortzi abizen euskaldun dituztenak, zazpi, bi edo bat ere ez.

Gizarte, osasun, ekonomia, hezkuntza, ingurugiro, mugikortasun, kultura, lurraldetasun eta abarretako politikak alde batera utzita, alderdi politiko bakoitzak Euskal herriaren kontzeptu desberdina du, eta ondorioz partekatzen dugun gaur egungo Ikurriña eta Nafarroako banderaren esanahia.

"Fórum Radio Euskadi" – egindako inkesta baten arabera Euskadin %52-ak nazio bezala kontsideratzen du. Nafarroan %32 eta Iparralden %34.



*Clasificación de la población según la identidad cultural*

*¿Se considera Ud. vasco? 1: Sí - 2: Sí en cierta medida - 3: No - 4: No sabe/No contesta*

Eta garrantzikoena, herritar guzti hauen artean herri legez bereizten gaituen hizkuntza aintzat hartuz, bagara gurean euskaldun zaharrak, euskaldun berriak, euskara nagusiki erabiltzen dutenak, ikasten ari direnak, saiatzen direnak, nahiz eta erdaldunak diren bere umeak euskarazko eredueta sartzen dituztenak eta abar.

Eusko Jaurlaritzak 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoak besteak beste ondorengo laburpena egiten du:

- Euskararen eremu osoan bizi ziren 16 urtetik gorako biztanleen % 28,4 (751.500 pertsona) zen euskalduna, eta % 16,4 (434.000 pertsona) euskaldun hartzailea
- Hamar euskaldunetik ia sei euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira, hau da, etxean jaso dute euskara (% 57,8). Etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak, hau da, **euskaldun berriak % 42,2 dira.**

- *Adinak behera egin ahala, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 30 urtetik beherako gazte euskaldunen erdiak baino gehiagok erdara du lehen hizkuntza (% 58).*

Gaur egun, euskal herritarrok komunitate heterogeneoa gara eta gutariko bakoitzak egiten ditugun aukera txikienean ere, *Euskaraldiak* ematen diguna adibidez, erabakitzen dute Euskal Herriaren etorkizunerako joera.

Horrela ba, egungo egoera zatikatuan, bandera ofizialak eta hauetatik aparte ere, beste batzuk erabiltzen ditugu gure aldarrikapen eta ospakizun nazionalerako:





Munduaren begietara ez da anabasa makala gero!

Eztabaida horren erdian, ezin dugu ahaztu gaur egun Ikurriña zein Nafarroako bandera ikur autonomiko bihurtu dizkigutela, eta horrela, erkidego bana ordezkatzeko erabiltzen direla. Ondorioz, espainiar gobernuaren ordezkari-tzetan edo estatu bien egiturak onartzen dituzten gobernuen eraikinetan ere eskegita daudela.

Ikurriñak azken hamarkadetan, lehen zeukan karga erreibindikatzaillea eta independentista galdu izana, hein handi batean EAEko bandera soilik bihurtu nahi izan delako eta Euskal Autonomi Erkidegoan alderdi espainolistek ere berenganatu dutelako izan da.

Horrela ba, Sabino Aranak sortutako Ikurriña esan daiteke ez dela guztiz errotu eta "Nafarroa Euskadi da" leloa nekez onartzen dela ingurumari honetan.

Adibidez, Eroski euskal enpresa banatzaile handiak ere, bertoko produktuak ikur desberdinez berezi beharrean aurkitzen da:



Kanpoko ikusle batentzat behintzat batasunik somatzea zaila da bandera hauen artean. Bakoitzaren historia ezagutu beharko luke nolabait elkarrekin lotzeko. Eta sarritan gertaera odoltsuen bilakaerak aipatuaz, adibidez Erdi Haroko gurutzada armatuak, bandoen arteko gatazkak, 1936ko guda zibila edo eta 2011-an ETaren borroka armatuaren bukaerako agerpenean:



Eta euskal herritarrok, nola imajinatu nahiko genuke gure herria sartzen ari garen aro berri honetan?

Historia aurrerantz doa etengabe, eta gure ekintza txikienek ere etorkizunaren bidea idatziko dute. Silvio Rodriguez-en “Al final de este viaje” abestiak dioen bezalaxe, “Somos prehistoria que tendrá el futuro”...

## VI. Altxa dezagun utopiaren bandera!

*“Nazio arazoa imajinazio arazoa delako” (Joseba Sarrionandia)*

*Wikipedian: Nazioa “Herria; gizatalde aski zabala, bere batasunaren ezagutza eta elkarrekin bizitzeko nahia ezaugarritzat dituena.”*

Eta honela definitzen du Nazioa Joseba Sarrionandiak *“Hitzen ondoeza”* bere liburuan:

*“Nazionalismoa: Baina nazioa ez da bakarrik anitza, zatitua, gatazkatsua. Nazioa komunitate imajinarioa da.*

*Nazio tipienaren partaideek ere ez dituzte bere komunitate lagun guztiak ezagutzen. Komunitatearekin identifikatzeko, beren arteko elkartasuna asmatu eta etengabe imajinatu behar dute.*

*Horregatik dira literatura eta artea arazo nazionala. Horregatik erabakitzen dute eskolek eta, gero, komunikabideek zein den nazioa eta zein ez den. Nazio arazoa imajinazio arazoa delako.”*

Imajinazio horretan nabigatuz, ondorioztatu genezake Lauburuak behintzat denok nolabait euskal herritar bezala identifikatzen gaituela munduan. Ez ote al dute merezi gure bandera “ofizialetan” tokiren bat izatea?

Wikipedia:

- *Bandera oihal zati bat da, normalean laukizuzena, alde batean masta batetik eusten dena eta batez ere gizataldeen ikur edo bereizgarritzat balio duena.*
- *Bexilologia (latinetik vexillum, 'Bandera', eta grekotik, berriz logos, 'Ezagutza') banderen azterketa da bere zentzurik zabalenean. Historiaren diziplina osagarria da, nahiz eta gaur egun semiotikaren zati gisa duen garrantzia ere ulertzen den.*

Bazen 1920-30 hamarkadan Ikurriñaren aurreko euskal bandera batean Lauburu irudikatu zuenik:



<https://www.todocoleccion.net/militaria-insignias/antigua-insignia-vasca-anos-20-30-pnv-lauburu-esvastica-guerra-civil-pais-vasco-euskadi~x45372131>

Haurreko ataletan Lauburu txertatua daramaten hainbat Ikurriña erakutsi dira, baina badirudi jarraibide luzerik izaten ez duen bikotea dela. Lauburaren formek, ez al lukete eskatuko Sabino Aranaren Ikurriña bigurutzeduna baino oinarrizkoagoa den euskarri bat?

Bilaketa lan luze honetan, beti ere lauburuaren esanahi identitarioa euste aldera, aurreko euskal banderen uztarketa minimalista bat eginez, koloreak eta lerro zuzenak aintzat hartuz, honatx lauburuaren indarra eta zentzua goratu ahal zezakeen oihalaren proposamen xume bezain esanguratsu bat:




Alde gorria: Euskaldunok adierazten omen gaituena. Gaur egungo Ikurriñaren eta Nafarroako Banderaren oinarrien kolorea bera. Euskal komunitatea osatzen dugun guztiok zainetan daramagun odolaren kolorea. Bizitzaren gorria.

Berdea: Euskal Herria, independentea, adierazten omen duena. Gaur egungo Nafarroako Bandera erdian dagoen esmeralda\* berdea, kateetatik askatua. Aldi berean, Sabino Aranaren Ikurriñaren gurutze berdeak diren Gernikako arbolaren hosto hedatuak adierazi ahalko lituzke. Naturaren kolorea. Euskal lurraldea eta itzaropenaren berdea aldi berean.



\*Esmeralda: Esmeraldak boterea, hilezkortasuna eta betiereko gaztetasuna sinbolizatzen omen du. Arrakasta eta ugaritasunarekin ere lotuta dago. Bere kolore berde distiratsuak lasaitasun eta bake sentsazioak sortzen ditu, beraz, energia ona erakartzeko erabil daiteke.

Beraz, Ikurrinaren oihal berri baterako proposamen honetan lauburua txertatuko balitz, horrela euskal nazioaren ikurren artean ikur honek mereziko lukeen maila jasoago bat izan ahalko luke behingoz. Hemen proposatzen den Ikurrina berri honek, munduko beste bandera antzerakoen proportzioak mantenduko lituzke:



(Iberiar penintsulako Portugaleko banderaren antzeko neurriak dira adibidez)



Aldaera batzuk aukeran:

Lauburu zuri batekin:



Edo beltz batekin:



Nahi izanez gero, alde batean kokaturik:



edo bestean:



Ala aurrekoen lauburu zuri eta beltzen oreka bilatuz, kolore biak uztartuko lituzkeen arestian diseinatutako lauburu zuri-beltza alde bien erdian azalduz, honek gogora ekarri ahal ligukeen esanahi are sakonagoarekin:



Euskaldun guztion batasuna eragin lezaken Ikurrina Berri baten proposamen ausart bezain ahaltsu bat litzateke.

Euskal herriari arnasa eman diezaiokeen berdea eta iragana eta oraina aintzat hartzen duen gorria. Zati gorria, euskal komunitatea osatzen dugunok, erkidegoetan edo diasporan administratiboki banatuta gaudenok gaur egun: Euskadi, Nafarroa, Iparralde eta euskal diaspora.

Gaur egun, beste estatuen menpe dauden gure komunitateek, Euskal Herri bateratu bat lortzeko bidean, hiru zati gorriak elkarturik ikusteko, gizateriaren garai bat gutxienez igaro beharko delakoaren jabe, egoera soziopolitikoari egokitutako Ikurriña batzuk sortzen dira ondorioz. Erraz ulertzeko eta identifikatzeko egitura baten txukun ordenaturik, elkarren arteko batasuna agerian delarik:



Ezkerreko alde gorrian bereizirik agertuko lirateke komunitate bakoitzeko ikurrak. Horrela ez da lehengo ikur bat ere baliogabetzen, integratu egiten gaitu bere osotasunean. Gaur egungo hiru erkidegoen identitatea aintzat hartuz eta euskal erkidegoetako ikurrak eta koloreak mantenduz. Aniztasuna biltzen duen zati gorria. Elkarren osagarri diren alde gorriak baina nortasunez bereziak.

Hiru Ikurriña berrietako alde berdeak, Euskal Herria bere osotasunean adierazi lezake. Amankomunean dugun zerbait. Herria bera. Ikurriña berrien bi herenak beteko lituzke. Berdeak beste zerbait zabalagoaren kide garen sentimendua islatu nahiko luke. Gainontzeko lurraldeekin osotasuna, batasuna adierazten duena.

Begirada batean, hiruren artean senidetasun bat barreiatzen da, gaur eguneko bakoitzaren berezitasuna kontutan hartuz eta izaera onartuz:

a) Euskal Autonomia Erkidegoa- Euskadi:



Alde gorrian Euskadiko gaur egungo Ikurriña goiko aldean eta ezkerrean kokatzen da. Kasu honetan Euskadiko alde gorriaren gainean agertzen dira, gurutze zuria eta gurutze berdea. Berdea eskumarantz hedatzen delarik, Euskal Herria osoa adierazten duen berderantz. Euskadiko herritarrei, handiagoa den komunitate baten parte direla gogorarazten dielarik.

Sabino aranak sortutakoak edukiko luke bere tokia, euskal kulturaren kudeaketa bizien dagoen erkidegoan, Euskal Autonomi Erkidegoko Ikurrin Berrian alegia.

Adibidez, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat, klima aldaketari buruzko nazioarteko goi-bilera batera doanean. Oraingo autonomi erkidegoa onartuko luke, Ikurriña goiko eskumaldean agertuz, eta aldi berean komunitate handiago baten parte ere bagarela aldarrikatuz.

b) Nafarroako Foru Erkidegoa – Nafarroa:



Ikurriña honetan zati gorria Nafarroako erreinuko katedun bandera agertzen da alde gorriaren erdi erdian. Euskal Herriaren parte nagusi ere badela adierazten duen berdea mantentzen delarik. Nafarrek libreki hauta bezate zein proiektutan bizi nahi duten, beti ere bere identitatea galdu gabe: Nafarroako Bandera, Espainiako Banderaren armariaren barnean konkistaturik dagoena edo Ikurrina Berriaren partaide askea izango litzatekeena.

c) Frantziako Euskal Departamentua – Iparralde:



Berdin, Iparraldeko elkargoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa, hiru herrialdeak barneraturik alde gorrian, eta eskuman, noizbaiten ezarri zaigun muga leunduko denaren itxaropenaren berdez. Iparraldeko probintziek, indarrak bildurik, euskal komunitate zabalago bateko parte direla adierazteko hautua izango lukete Ikurrina Berriaren familia honetan.

- **Diaspora** -Euskal Herritik erbestera joandakoak

Ezin ahaztu aurreko mendeetan Ameriketara ardiak zaintzen, Australiara azukre kainaberak mozten edo beste arrazoiengatik atzerrira joan eta bertan gelditu diren euskaldunek, jende jator eta langile fin bezala utzi duten irudi ona.

Hamar miloi omen dira munduan zehar euskal arbasoak dituztenak. *“Euskal Herria bere zazpi probintzia historikora mugatzea akats bat litzateke. Gaur egun nola ez aipa munduan gaindi barreiatuak diren euskaldunak?”* [https://www.eke.eus/eu/kultura/euskal\\_herria/euskal\\_diaspora](https://www.eke.eus/eu/kultura/euskal_herria/euskal_diaspora)

Adibidez, Euskal estatubatuar ospetsuen zerrenda luzea da, eta izen-deitura horien guztien artean aipatzekoak dira John Sevier (1745-1815) Tennesseeko lehen gobernadorea, Jose Iturbi (1895-1980) musikagilea, Frenchy Bordagaray (1910-2001) beisbol-jokalaria, Pete T. Cenarrusa (1917-2013) Idahoko estatu idazkari ohia, Paul Laxalt (1922-2018) Ameriketako Estatu Batuetako senataria, John Garamendi (1945-) Kaliforniako gobernadoreordea, Ben Yursa (1949-) gaur egungo Idahoko estatu idazkaria, John Etchemendy (1952-) Stanforderko Unibertsitateko nagusia, Joe Ansolabehere (1959-) animazio-gidoilari eta ekoizlea, David H. Bieter (1959-) Boiseko (Idaho) alkatea eta Adam Archuleta (1977-), NFLko jokalaria, beste askoren artean.

Ezaguna dugu pertsona hauek temati urteetan zehar bere izatea eta egitea zaintzen ekin dutela, adibidez Euskal Etxeak eta beraien inguruan dagoen jarduna, Idahoko Jaialdia adibidez. Ekintza hauetan, Ikurriña eta harrera-herrialdearena (Estatu Batuak, Australia, Argentina...) biak bereizita erabiltzen dituzte. Herrialde bata zein bestearekiko sentimenduak dauzkatela aitortuz.



*Euskal jaia Ameriketako Estatu Batuetan.* Aurrean zintzilik ikusten diren banderinek, euskal superproiektu adeitsu baten parte ere badirela gogorarazi liezaiekete bertaratutakoei. Atzean ikusten direnek aldiz, “ I feel fragmented and a little bit confused” sentiaraztea eragiterik badute)

*Boiseko Euskal Etxea Idahon.*  
Ikurriña eta Estatu Batuetako bandera atarian



Gaur egun ere jarraitzen dute bere horretan euskara eta folklorea mantenduz, baina denbora pasa ahala, bai sentimenduak zein hizkuntza “zaharkituz” joatearen arazoa dago. Bizitzaren legea, besterik ez. Herrimina “sendatuz” doa belaunaldiz belaunaldi. Sorterriari so eginez, Ikurriña bigurutzeduna, iraganenean galduz doan atzera begirada bat bihurtuz.



Celebramos el primer siglo de intensa vida institucional en la ciudad y la región.  
 Un siglo compartiendo logros y esperanzas e integrándonos en cuerpo y alma a esta generosa comunidad.  
 En tan grata conmemoración, brindamos por la Argentina y por nuestro querido País Vasco, por sus pueblos y por un futuro de Paz y Prosperidad para todos.



Esan behar ere, diasporan ere badaudela Nafarroako banderarekin identifikatuagoak egon ahal litezkeenak:



Egitasmo honetan proposatutako ondorengo ikurrinekin komunitate hauek Euskal Herriarekiko duten eginkizunaren garrantzia sendotu nahiko litzateke. Ikurriña berrien egiturak pisu handiagoa eta erantzunkizuna ematen dielarik Euskal Herri baten eraikuntzan. Egitasmo honetako ikurrinetan alde gorrian beraien gaur egungo herrialdea azalduko litzateke beste euskal erkidegoen pareko. Eskumaldean, berdeak, proiektu handiago baten parte direla gogoraraziz: Euskal Herria globala.



Euskal exteak Estatu batuetan, Argentinan, Australian, Chilen, Mexikon, Uruguayan, Venezuelan, Perun, Txinan... Bere euskal jatorria, nazionalitateen gaindik jarriko lukeena.

Ikurriña berri hauen familia honek aukera ematen du bere baitan edozein herrialdeko bandera txertazeko. Sustraiak agerian, nolabaiteko egitura ordenatuagoa ezarriko luke.

Munduan zabaldurik dauden Euskal Etxeen eta Euskal Erakunde Publikoen arteko harremanen instituzionalizazioa, duela urte batzuetatik martxan dago.



- Montevideoko "Lurak-bat", munduko lehen euskal etxea:



- Badaude beste Euskal-Etxe batzuk Laurak-bat izenarekin, Buenos Aires edo Espainiako Valencian adibidez:



Ezin ahaztu ere, Espainian bizi diren hainbat euskaldun, bertako gizartean adiskidetasunean integraturik bizi direnak baina bere euskal jatorria bizirik mantenduz. Haurtzat adibidez:

- **Etorkinak**- Euskal herrira etorritakoak. Euskaldunok mendeetan zehar burdinaren lanketaren inguruan pilatu dugun jakintza mundu mailan ere ezaguna da. Historian zehar ezagunak dira gure burdinolak, lantegi eta altzairuari

lotutako industria. Adibidez, batik bat garapen horri esker etorri ziren Euskal Herrira milaka familia Espainiako bazterretatik. Batez ere orain dela 100 urte inguru hasi zen etorrera masiboa. Zeukaten guztia makuto batean sartuta, lanera eta bere bizitza egitera, euskaldunok Ameriketan edo beste edo edonon egin dugun bezala, bere sustraiak ahaztu gabe era desberdinetan egokitu dira. Ez dira makalak hauetariko batzuk euskal kultura eta naziogintzari egin dizkioten ekarpenak.

Berton bizi diren pertsona hauek eta bere ondorengoak euskal herriko populazioaren zati handi bat izanik, aberri egunean mirestekoa litzateke pertsona hauek gaur egungo gurutzadun Ikurriña ateratzea ordea, "motxila" historikoagatik batez ere.

Bertokoak izanda eta aldi berean beraien jatorrizko erroak ere mantenduz, euskaldun sentitzen direnentzako ongi etorria egin diezaieke Ikurrina Berriaren oihalaren eredu honek. Integrazioa adierazten duten Ikurrin hauek beharbada heldutasunez atera ahal lirateke edozein herriko plazetan:



Andaluziatik, Castilla-La Manchatik, Castilla-Leonetik, Catalunyaatik, Extremaduratik, Galizatik, Valenziatik... batez ere euskaldunak sentitzen direnentzat Ikurriña berrien artean leudeke.

- Edo munduko **beste herrialdeetatik** etorritakoak ere edukiko lukete euskal banderen artean bere tokia.

Adibidez, Alemaniatik etorri eta euskaldundu diren adibide eredugarrietako bat, Michael Kasper zena gogoratuz, bere liburuetako bat alemanez "Euskaldunon historia" idatzi zuela bestek beste:



Beraren omenez, Alemaniako bandera, Ikurrina Berriaren ezkerreko alde gorrian txertatuz:



Nahiz eta bigarren liburu hau erdaraz idatzi, euskaraz bazekien "Mikel"-ek, baita bere lagun izan ziren Ingo Niebel edo Jurgen Lange euskaltzaleek ere.

Edo euskaraz hitz egiten ikasi duten Ukrainatik etorritako haurrentzako adibidez:



Edo euskara maite duten Zumarragako morokoar euskaldunak:



Aspalditik gure artean dauden saharauiar euskaldunak baita:



Herrietako koadrila euskaldunetan integraturik dauden txinatar gazteentzako helduleku:



Horiez gain, Afrika, Amerika, Asia, Ozeania edo Europako beste edozein herrialdeetatik etorruta, bere burua euskaldun ere sentitzen direnentzako beste hainbeste bertsio sortu litezke ikurrinen egitura kulturantzun honetan.

Bata bestearekiko begirunez, euskal gizarte osasuntsuago eta irmoago bat osatzeko asmoarekin. Zirriz-Mirriz abestiak dioen bezalaxe:

Berdin berdinak ez gara denok  
ta ez dago inor baztertuta,  
alaitasunez ibiltzen gara  
batuta eta nahastuta,  
hainbat kolorez, hainbat kulturaz  
daukagu herria osatuta,  
ume guztiak sentitzen gara  
pozik eta maitatuak.

Zirriz-mirriz elkarrekin biziz,  
zirriz-mirriz euskaraz biziz

Milaka hizkuntza, milaka herri  
badira gaurko munduan,  
Hassan, Tamudi, Dalai ta Itsaso  
batera daude eskolan;  
bertan jaioak, heldu berriak,  
aberastuz gure artean,  
umeak pozik bizitzen gara  
bat eginda Euskal Herrian.

- **Lauburua, lau herrialde nagusi ordezkatzan**


Egitasmo honetan ez da Ikurriña guztiz berri bat proposatzen, Euskal Herria osatzen duten erkidego bakoitzeko gaur egungo bandera desberdinak txertatuak dauzka. Aldi berean, zerbait haundiagoaren parte direla iradokitzen duelarik, hau da Euskal Herri osoa gogora ekartzen duen alegiazko irudi baten barnean.

Bide horretan jarraituz, gaur egunean nolabait egoera sozio-politiko-ekonomiko bereiztuetan banaturik gauden lau herrialdeak bilduko gintuzke lau-buruak:



- Euskadi
- Nafarroa
- Iparralde
- Diaspora

Horrela ba, hasierako Lauak-bat aldarriak bere esanahi eguneratua izan ahalko luke:



Azpien dagoen Ikurrina Berria zabalik gelditzen da, munduan sakabanaturik aurkitzen diren euskaldunen harrera herrialdeen bandera guztiak ordezka ditzakelarik, bakoitzaren idiosinkrasiaren erroak errespetuz mantenduz euskalduntasuna ahaztu gabe, birtualki lotuta.

- **Euskal probintziak. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa**

Zazpiak bat egitasmoa ere hainbatetan abestu, aldarrikatu eta amestua izan da:



Probintzienak ere edukiko lukete lekua Ikurrina Berriaren egiturari. Zazpi herrialdetako Ikurriñak ere oihal beretik atera daitezke: beste guztiek bezala, zati gorrian adierazita bakoitza identifikatzen duena. Sabino Aranak egin zituen euskal probintzietako Ikurriña desberdinen sortaren ildoari jarraituz, Ikurriña Berri honek bere egiturari probintzietako armak aisa sartzeko aukera emango lieke baita:



*Oharra: Gipuzkoako armariaren atzekaldea jatorrian gorria omen zen. <http://www.euskonews.eus/0502zbk/gaia50201es.html>  
Diseinuaren ikuspuntutik, beste asko bezalaxe Ikurriña Berri hau ez litzateke simetrikoa izango, hau da, haizetara astintzean bi ikuspegi izango litzuzke:*



Utopiaren bandera hau altxatzean Lauburua normalean erlojuaren orratzen zentzuan biraka ikusi beharko litzateke (destrogiro), aldiz beste aldetik begiratzerakoan alderantzizko zentzuan biraka (lebogiro) litzateke, goiko irudian ikusi daitekeen bezala.

Hamaikatxo interpretazio daude esbastikaren biraketa zentzuaren inguruan. Berau bertute bat bezala har liteke halaber.

(Aipatu munduko banderarik gehientsuenak ere ez direla simetrikoak. Adibidez Frantzia, Estatu Batuak, Txina...).

Bestalde, haizerik ez balego ere, masta aldean gorria eta aldamenean berdea nabarmen lirateke.

Lau haizetara, Lau urtarotan, Ikurriña Berri hau astintzen imajinatuz, Esteban Urkiaga, *Lauaxeta* olerkigilearen hitzak datozkigu gogora: *“Dana emon bihar jako maite dan askatasunari”*.



Sormenezko atal hau hasi den bezala Joseba Sarrionandiaren *“Hitzen ondoeza”* liburuko gogoeta batekin amaituz:

***Organikotasuna:*** *Animalien gogoa organikoagoa da. Hegaztien hegadak dituzte, hegatzegiteko desira organo bihurtu zitzaielako.*

*Gizakumeok ez dugu egonarririk ez ahalmenik horretarako. Hegatzegiteko gogoa izan genuenean abioiak asmatu behar izan genituen.*

## VII. Ametsezko bide batean gogoetak

*“Euskaldunon independentziaren gogoa ez dela konplutuko horretarako estrategia egokia asmatzen ez bada”- Joseba Sarrionandia*

Historia, momentuko egoera aldaketak idazten dute etengabeki. Aldaketak badituzte bere alde onak eta txarrak baina orokorrean harturik, humanitatea hoberrantz eboluzionatuz doala esan genezake. Badaude krisi garaiak eta garai hobeak, eta egoera hauek aukera bat bezala hartuz, hartzen diren erabakiek historia alde batera edo bestera bideratzen dute.

Saiakera honen asmo nagusia, nazio ikur baten inguruan estrategikoa izan daitekeen gogoeta ireki bat piztea litzateke. Eta emaitzak direnak direla, ikur nazional demokratikoki onartu bat indartua aterako litzatekelakoan, pazientziaz garatu da.

Egun ordezkatzeko gaituen Ikurriñak, euskaldunon herriaren azken urteotako historia gatazkatsua izan du bidelagun, jaiotzearen euskal abertzaleak biltzen dituelarik. Eta garrantzitsuago dena, euskal kulturari bizirik irauteko arnasa eta kemena eman diola aitortu behar zaio.

Aldiz, ehun urte baino gehiago dituen Ikurriña honek motxila gatazkatsuegia darama soinean. Humanitatearen historia, tamalez guda eta banderen historia da parte handi batean eta gurea orain dela gutxi arte etengabe odolez zipritindua egon da munduaren begietan. Bitxikeria bezala, bando bateko zein besteko erailen hilketak estaltzeko erabilia izan da gure historiako azkeneko hamarkadetan.

EAE-CAV edo Euskadiren bandera ofiziala izateak jatorrizko zentzuaren zati bat kendu dio ordea, Euskal Herria, Iparraldea eta Nafarroako erresuma beste kontu bat bait da. EAE-CAV, Iparralde edo Nafarroako biztanle batzuen aburuz, komunitate mugatu bat soilik ordezkatzeko duen erkidegoko bandera bat litzake gaur egungo Ikurriña.

Erdi Arotik datozkigun Nafarroako Erresumaren muga geografikoei etengabe eusten aritzea, munduaren eboluzio global baten ikuspuntutik, nekagarria bezain antzua gerta litzazuke.

Hau dena kontutan hartuz, iraganekoari begirunez, baina etorkizunari begira, munduan milaka uretako historian zehar biziraun duen euskal kulturari arnas berria emateko helburuarekin hasi zen nazio ikurrei buruzko egitasmo hau. Euskal herriaren nazio eraikuntzaren bidea epe ertain eta luzera irabazbidean jartzeko estrategikoa izan daitekeen proposamen ausart bat eskaintzen saiatuz.

Ondorengo helburuekin:

- Euskal herriko biztanlego heterogeneoa eta gaur egungo errealitate politiko-demografikoa aintzat harturik, hauen batasun kontzientzia irekiago bat eragiteko aukera eskaintzea.
- *El pueblo unido jamás será vencido*, abestia ezaguna gogoratuz. Estatu propio bat lortzeko bidean indarrak batu, eta batez ere kide berriak erakartzeko asmoz, euskal munduaren eboluzioaren gurgilari eragiteko zenbat eta esku gehiago batzea hobe dela jakinez.
- Euskararen herri zatitu honetan, batzen gaituzten indarrak metatzen dituen ikur bat adosteko.

- Munduaren begietan euskal komunitate bakar bat bezala argi identifikatuko gaituen eta aintzat hartzekoa den ikur bat sortzeko.
- Gaur eguneko gizartearen joera aldakorraren jabe, Espainiar eta Frantziar Estaturekin daukagun borroka guztiz desorekatu eta amaigabeari aurre egiteko, bulkada tresna berri bat eskaintzea.

Horrela ba, ikuspegi zabal baina argi norabideturiko batetik, proposamen berritzaile bezain irekiak eskaintzen dira ekarpen honetan.

Proposamen horien artean nabarmendu da euskaldunok maite dugun ikur bat, Lauburu. Toki jasoago bat mereziko lukeena euskal ikurren ordezkartzan.

Batez ere Lauburuari buruz ikertutako Internet ordu luzeetako lan honetan, proposatutako lauburu zuri beltza, Ikurriña berri baten txertatzeak lituzkeen sendotasun, ahulezia, arrisku eta ematen dituen aukerei buruz, gogoeta batzuk zerrendatzen dira:

### Sendotasunak

- Lauburuak daukan esanahia eta Euskal Herriarekin identifikazioa. Euskal sena dario alde guztietatik.
- Lauburuak diseinu erakargarria du. Edonorri hasieran jakinmina sortzen diona, identifika erraza eta nekez ahaztekoa.
- Ez dauka inongo errege, erresuma edo Autonomiekin loturarik.
- Lauburuak Interneten, Google-n, 380.00 sarrera dauzka. Lauburu da, eta gaur egungo Ikurriña eta Nafarroako Banderaren ondoren, euskaldunon sinbolorik zabalduena.
- Esanahi ideologikorik ez omen du. Euskalduntasuna era desberdinetan ulertuta baizik.
- Lauburuak gure arbasoen jakintzara dei egiten gaitu.
- Lauburu bat marrazteak duen xarma erritual baten antzekoa da. Pausu zehatz batzuk jarraituz konpasarekin erraz marrazten da, batera zein beste aldera biraka:



- Ikur edo marka argi bat izatea, garrantziko da edozein ekimenetan, bai barnera begira eta bai kanpo aldera begira. Ikurrek indar handia daukate nazio eraikuntzan.
- Munduan zehar argi identifikatuko gintuzke. Sinpatia sortuko ahalko luke. Lauburu zuri beltza ez da erraz ahazten den irudia.
- Judutarrek mundu osoan zehar identifikatzeko darabilten David-en Izarra bezala zabaldu liteke.
- Esbastika sinbolo unibertsala izanik, lauburuak unibertsal egiten gaitu ( Ikus eranskinak).
- Lauburu zuri-beltza, berritzailea eta aldi berean klasikoa.
- Mundu guztian zehar ezagutzen da zuri-beltzaren esanahi zabala bezain sakona. Zuri-beltzak dualtasuna adierazi nahiko luke. Unibertsoaren oreka. Unibertsalago egiten gaitu.

- Beste gauza askoren artean osasun fisiko eta mentala adierazi ditzake. San Andres eta beste gurutzeekin alderatuta irudi positibo eta osasuntsuago bat emango luke.
- Bibliaren arabera, besteak beste Jesukristo eta San Andres bidegabeki hil arte torturatu zituzten ikurra da gurutzea, edo bitzta eta heriotzaren gupila bezala interpretatu daitekeen nolabaiteko gurutze borobil birakaria aldiz lauburuak.
- Lauburuak, bakea, sosegua eta oreka adierazi ditzake baina aldi berean dinamismoa ere (birakaria esker edo eskumarantz).
- Euskal Herriko historia gatazkatsuen bukaeraren hasieran jaioa, lauburu zuri-beltzak jauzi kualitatiboa adierazi lezake.
- Ereserki bateratu berri bat eta dantza herrikoi ezagun bat estekaturik eraman ditzake. (Ikusi eranskinak)
- Iparralden edozein txokotan aurki ditzakegu Lauburuak euskalduntasunaren seinale bizi gisa. Etxe atarietan, ibilgailuen matrikuletan, dendetan, ostatuetan, produktu gastronomikoetan, oihaletan, frontoietan...





### Ahultasunak

- Ying-Yang ikurrarekin antzekotasunak izateak eta beraz, ekialdeko kulturarekin erlazionatzeak baliteke batzuk guztiz ez gogobetetzea.
- Ez da orain arte Laburu zuri-beltzik ikusi.
- Lauburu apaingarri gisa, folklore hutsa bihurtutako ikurra.



### Aukerak

- Lauburuaren esanahia eta historia berreskuratzeko zilegitasuna.
- Belarritakoak, lepokoak, gemeloak, pin-ak, kotxetako pegatinak, turismoko edozein oroigarri egiteko aproposa izan da lauburu. Erraz inprimitu edo bordatzekoa.
- Beste alde batetik, mundu mailan hartzen diren erabaki geopolitiko estrategikoek subjektibotasun alde bat badutela kontuan izanik, munduko potentzia den Txinarekiko hurbilketa, lauburu zuri beltzak ying-yang sinboloarekin duen ahaidetasunarengatik.
- Atzerrian emango genukeen irudi baikorra.

### Arriskuak

- Naziek ere erabili zuten ikurrarekin gaizki erlazionatzea.
- Jendarteari nekez eta erdizka helaraztea lauburu zuri-beltzaren esanahien mamia.
- EH bateratu bat izatearekin bat egiten ez dutenek herriaren ikur bakar bat ez onartzea.

Honela ikusita behintzat, Lauburua euskaldunon ikur nagusitzat aitortzeak onura gehiago lituzkela eragozpenak baino.

Eta behin honarte helduta, Lauburua euskaldunon Ikurriñan sartzera ausartuz, Ikurriña berri bat sortzearen beharrak eraginda, komunitate heldu bat irudikatzen duen Ikurriñaren eraberritzean ondokoak hartu dira aintzat:

- Hiru komunitate desberdinetan banatuak gaude aspalditik eta ibilbide desberdinak izan dituztela onartzea.
- Aurreko banderek begirunea merezi dutela.
- EH eraikitzeke gehiengoaren batasuna lortzea oinarritzkoa dela.
- EHko biztanleek gure herriarentzako askatasunez dauzkaten proiektu desberdinak daukatela, etorkizun desberdinak irudikatzen dituzten hainbat ideologia uztartzea.
- Euskal Herri bateratu bat lortzeko bidea luzea eta hainbat trabez josia izango dela onartzea.
- Euskal Herriko lurraldetik kanpora bizi diren eta euskaldun sentitzen direnei arreta berezia ematea.
- Historiako une politikotik gaindi dagoen bandera bat, sustatzen duen prozesua errespetu eta elkar ulertze giro batean eta era demokratikoan egitea. Erabakitze eskubidea.
- Era guztietako munduko euskal hiztun guztiei besoak zabaltzen dien bandera bat garatzea. Beraiek bait lirateke euskalduntasuna zabaltzen duten gaurko "gudariak".
- Euskaldun berriak "gudari" lirateke, Sabino Arana euskaldun berria izan zen bezela. Jon Maiak dioen bezala, *beraien euskara da politena, bizitza berri bat ematen diolako*.
- Ikurrina Berria baten aukeraketa prozesu hipotetiko batean emaitza edozein izango balitz ere, adostutako Ikurriña onartzea.
- Lan hau egiteko ehundaka informazio iturritatik hartutako ezinbesteko informazioa kontutan hartzea.
- Zaila bazaigu ere, batzuetan zerbaiti uko egin behar zaio epe ertain eta epe luzera begira onura haundiagoak ekar ditzan. (Denok zerbait albo batera lagatzen badugu guztiok irabaziko genukela). Sakoneko jauzi kualitatibo egite aldera, sarritan atzera pausu bat egin behar izaten da bultzada hartzeko.
- EHko historiaren bilakaerak aldi desberdinak ezagutuko dituela onartzea, eta horretarako egokitze gaitasuna eta pazientzia behar dela.
- Hegoaldeko euskaldunok, gaur egun bi ikur nazional baditugu, jatorri ezberdineko bi ikur, Ikurriña eta Nafarroakoa. Bi ikur hauen erabileraren inguruan, gaizki ulertu ugari eta ezadostasun handiak izan dira gurean, gure egoera nazionalaren isla. Bi banderek kontzeptu bera ordezkatzen dute eta biek, euskal herritar guztiak eta euskal lurralde osoa ordezkatzen dituzte. Halere, garai eta jatorri ezberdinekoak izanik, tamalez elkar ulertzeko baino gehiago zatitzen gaituzte.

- Gaur egungo Ikurriñak bakarrik, ez du Euskal Herria guztiz batzea lortzen.
- Gaur egungo Ikurriñak iragan politizatuegia dauka, biztanle zati esanguratsu batek benetan berea balitz bezala onartu dezaten.
- Nafarroako bandera da historikoki zilegitasuna daukana baina azkeneko mendeetako historia tirabiratsua ez du kontutan hartzen.
- Nafarroako bandera euskaldunon bandera bezala berreskuratzen saiatzeak muga kontuetan galtzeko arriskua ekar lezake.
- Nafarroako bandera euskararen errepublikako Ikurriña inoiz izango balitz, Euskadiko Autonomi Erkidegoko biztanleen gehiengoak noizbait onartuko al luke?
- Bandera nazional baten helburua, ordea, kohesioa, batasuna adierazi eta bultzatzea da. Hori dela eta, batzuek elkarren artean ez ulertzeko eta zatitzeko erabiltzen dituzten bi bandera nazionaletatik bandera nazional bakarrera urratsa emateko proposamena luzatzea da egitasmo honen xedea. Oinarri historikodun ikurrin nazional integratzaile berri bat, euskal sentsibiltatea duen oro ordezkaria dezakeena.
- Badaude Ikurriña berri bat sortzearen gai honetan izan diren proposamen gehiago (Ikusi eranskinak). Ikurriña bigurutzedunarekin guztiz konforme ez gauden seinale.
- Ikurriña eta Ikurrina Berria alderatuta: Lurralde mugatu batekoa bata eta aldiz eremu zabalagoa eta inklusiboagoa bestea. Muga geografikoez gaindi dagoen Ikurriña Berri bat.
- Garai berriak, arnas berriak, ikur eta bandera berriak. Gazteak beti daude aldaketetarako prest.

Hona hemen lan honetan proposatzen den Ikurriña berri bat sustatzeak dakartzkion sendotasun, ahulezia, arrisku eta ematen dituen aukerei buruz ideia batzuk:

#### **Sendotasunak**


- Euskal sinbologian erabilitako kolore ezagunenak ditu. Lehengo Ikurrinenak, Nafarroako banderarenak eta hainbat euskal kutsuko sinbolorenak.
- Ikurriña berri honekin Nafar eta Ikurriñaren arteko tentsioa leunduko litzateke.
- Euskal gizartearen bateratzailea. Herrialde guztietako biztanleriaren gehiengoa oihal berak bilduko lituzkeen moduan diseinatua egongo litzateke. Eskuzabal jaioko litzateke.
- Herrialde guztiak bere txoko gorria edukiko lukete Ikurrina Berrian. Bere identitatea errespetatuz egitasmo handiago baten barruan. Begirunetsua. EH-ko gizarte gehienak norberaren sinbolotzat onartu lezakeena, bakoitzaren nortasuna eta erroak mantenduz egitasmo zabalago baten barruan.
- Egitura ordenatua. Norabide argi batera bideratzen gaitu. Euskal batasuna. Munduko gainontzeko biztanleen begietan, ulertzen diren gauzak, onargarriagoak egiten zaizkigu gizakioi berez. (Naturalki, gauza ordenatuak eta logika ulergarria dutenak atseginago egiten zaizkigu gizakioi, lasaitasuna sortzen bait digute).
- Ikurrinen artean batasun bat badagoela adierazten dute. EH-ko herrialdeak, hau da, Euskadi, Iparralde, Nafarroa eta diasporakoak antzeko Ikurriñak izango bait lirateke.
- Nazioarteko topagune batean norberaren herriko banderari buruzko azalpena eman behar balitz, atsegina zatekeen Lauburudun Ikurriñari buruz aritzea.



- Edozeinek bere lurraldeko Ikurrina Berria haizetara jartzean (bakoitzak bere lurraldea Ikurriñaren alde gorrian azaltzen duelarik), beste lurraldeetako ikurrin berriekin ahaidetasuna gogotan du.
- Lurralde edo jatorri desberdinetako ikurrin guztiek oihal egitura berbera izateak ahaidetasun zentzua indartuko luke. Proiektu handiago baten parte izatearen joera natural atsegina areagotuko luke. *\*(Pertinentzia-zentzua, guztiz positiboa denean pertinentzia-harrotasuna ere deitua, pertsona batek talde edo erakunde bateko kide edo partaide dela sentitzea da, bereziki talde edo erakundeko beste kideek aldetik onartua eta errekonozitua izateagatik. Sozializazio eta motibaziorako faktore nagusienetakoa da eta pertsonarengan autoestimua eta autorrealizazioa sorrarazten ditu. Enpresetan, bereziki landu beharreko alderditzat hartzen da.*
- Aldaketa gauzatzeko azpiegitura handirik ez du behar. Herri galdeketarako borondatea besterik ez.
- Euskal Autonomi Erkidegoko Ikurrina Berria, Espainiako autonomien proiektutik at, gainontzeko Ikurrina Berriekin lotua legoke.



- Euskaltzaindiaren ortografi arauekin zuzentasunez jokatzuz, jatorrizko *Ikurriñaren* ñ hizkiaren ordez, *Ikurrina Berria* n hizkiz idazten hasteko aukera legoke.
- Badago munduan bandera berri xamar bat, besteak beste bere Ying-Yang-atik ezaguna egiten zaiguna, Hego Koreakoa alegia. Gaur eguneko herri aurreratu bateko bandera, lau alde esanguratsutan banatua:



- Munduko banderen artean diseinu ezaguna, familiarra, izango luke: Bi koloredun banda bertikalak, erdian irudi (armarri) batekin, Lauburua.
- Lauburudun Ikurrina Berria begien aurrean ikustean, euskal hiztun ziren, Baionako, Iruñako, Foruako edo Guardiako arbasoen begirada jaso genezake nolabait.
- Minimalismoa eta osasun mentala. Ikurrina Berriaren diseinua, euskaldun guztiok erabiltzen ditugun ikur eta banderen arteko uztarketa minimalistaren saiakera bat denez, Maitane Ormazabalari egindako elkarrizketa batetik ateratako aipamen batzuk:

*“Minimalismoa da bidea” naiz.eus: «Gizarte kapitalista kontsumitzaile batean bizi gara eta jendea jabetu bitartean eskaintzen zaigunaren erdiaren erdia ez dugula behar, jai daukagu.*

*Ez da egun batetik besterako aldaketa.Pauso txikietatik handietara. «Landu ditudan antolaketa proiektuetan ikusi dut. Bezeroa gauza txikiak erabakitzen hasten da eta konturatzen da horrek ematen dion energia eta ongizatea estrapolatu daitezkeela beste gauza batzuetara. Lehentasuna. Hitz magikoa. «Erabakitze prozesua da.*

*Minimalismoak esentzia bilatzen du, gure bizitzan oreka izatea, garrantzitsuena denari jarriz arreta. Kanpoko ordenak barruko ordena dakar.*

*Gu aldatzen goazen heinean gure espazioak aldatu egin behar direlako. Eta ikusten dudana da aldaketarik ez dela izaten eta horrez gain pilaketa latza egoten dela; sekulako desmadrea egoten da, jendeak ez daki*

*bere espazioetan zer daukan, ez ditu gauzak aurkitzen, zoratu eta nekatu egiten da... Eta energiari dagokionez, zure etxean gustura aritu ezin izatea baino gauza tristeagorik ba al dago? Bai, egon badago, baina hau tristeetako bat bada», adierazi du.*

*Garrantzitsua da, bere esanetan, «kontzientzia izatea gure espazioetan zer daukagun eta nola daukagun.*

*Espazio txukun batek edonori bizitza hobetzen dio edozein eremutan.*

*Antolatzaile profesionalaren jarduna ez da dekoraziora edo txukunketara mugatzen. Sakoneko prozesua da, oso. «Antolaketak psikologikoki asko mugitzen du, batzuetan gehiegi».*

## Ahultasunak

- Aldaketei erresistentzia naturala. Euskal herritar gehiengoaren buruetara eta gero bihotzetara heltzeko bide nekeza da. Aldaketa prozesuek denbora eta gogo handia behar dute.
- Ausardia eta pazientzia behar da historikoa izan daitekeen gai simple bezain konplikatu aurrera eramateko.
- EH-ko biztanleen artean abertzale diren eta ez diren zati handi batentzat, gaur egungo gurutzadun Ikurriña errotua dago.
- Gaur egungo Ikurriña EH-ko historian atal labur baina gatazkatsu batean bidelagun leiala izan da. Eta sentimenduzko balio handia dauka askorentzat, batez ere helduentzat.
- Proposatutako Ikurriña berrien egitura, gaur egungo Ikurriñak EAE-CAV ordezkatu luke solik.
- Portugalekoaren antza izatea (kolore gorriberdeak alderantziz dauzkate). Baina ez al da Iberiar penintsulako eta Espainiatik independizatu zen herrialde errepublikar hau, Union Jack deritzon bandera Britanikoa baino hurbilagokoa, bai geografikoki eta bai historikoki?



- Arana Goiri anaiek Ikurriña diseinatu zutenetik nolabait jendartean aurkeztu zenerarte 42 urte pasatu ziren.

## Ematen dituen aukerak

- EH-ko biztanleriaren gehiengoa ordezkatu luke. Zortzi abizen dituztenetatik hasita, batik ere ez dauzkatenak arte. EH gizarte bateratuago baten kontzientzia eragingo luke.
- Abertzaletasun pluralago baten kontzientzia piztu lezake.
- Ikurriña berrien egitura ulergarria. Ordena erakutsiko luke EH-ko biztanleentzat beraientzat ere “etxea” txukun legoke.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ikurrina Berria ofizialduko balitz, gainontzeko Ikurrina Berriak gogora ekarriko lituzke ezinbestean, beste euskal herriekin bat garela adieraziz.
- Munduari begietan ere Euskal Herriaren lurraldetasuna hobeto ulertzen lagunduko luke. Aintzat hartzeko modukoa.
- Txirrindulari froga nagusienetan (Tourra, Giroa, Espainiako itzulia...) Ikurriña ateratzea oso zaleak garenetan, Ikurrina Berriaren ikur bitxi eta esanguratsuak jakinmina sortaraziko lieke ikusleei zalantzarik gabe.
- Komunitate guztiei, zazpi herrialdeak barne, bere protagonismoa eta identitatea mantentzeko aukera emango lieke. Ikurriña, Nafarroakoa... bakoitza bere erkidegoan mantenduko litzateke ikur nagusi bezala.

- Hegoaldeko bi erkidegoak, iparraldekoek eta diasporak aman komunean zerbait badutelaren irudi munduaren begietan.
- Diasporakoei bere EH-ko tokia, protagonismoa ematen die, bere herrialdea alde batera utzi barik.
- EH-ko autodeterminazioa, independentzia, feminismoa, LGTBI edo beste edozein aldarrikapenen mezua plazaratzeko, Ikurriña Berrien diseinu malguak aukera emango lieke (ikus eranskinak).
- Agerraldi eta ospakizunetan, hitzeko ez diren komunikazioan bata bestea erraz identifikatuko ginatke, nafarrak, zuberotarrak, euskal-australiarrak, euskal-galziarrak, feministak, independentistak... gure arteko elkarrizketa bideak sustatuz.
- OTAN-ek gastu militarra bikoiztu nahi duen garai honetan. Ikurriña bigurutzeduna baino aurpegi bakezaleagoa azalduko nahiko lieke munduari. Guda hipotetiko batean, agian esbastika unibertuala ikur duen herria, berriz bonbardatua izateko nekezagoa.
- Euskal gizarte pluralaren identitate adierazpen beharrezana betetzeko, adibidez Aberri Egun batean bakoitzak bere Ikurriña balkoira ateratzekoan, bizikideekin tirabirarik ez luke sortu beharko. Adibidez, Galiza-ko bandera duen Ikurrina Berria ateratzea bai Galizako egunean edo bai Aberri Egunean.
- Ikurrina Berria garai berrietara egokiturik, Euskal Herria batzeko, abertzaletasun bakezale eta asertiboagoa bilatu nahirik.
- Garai berri eta itxaropentsu baten hasiera markatuko luke gurean.
- Euskal gizarte moderno eta batuago bati erantzuna emango lieke.
- Ereserki eta koreografia nazionala Ikurriñari zuzen lotuak izango lituzke (Ikusi eranskinak).
- Garai berrietara egokitze ahalmena dugula erakutsiko genuke.

### **Izan ditzakeen arriskuak**

- Nafarroako banderak 1.000 urte inguru izango ditu eta Sabino Aranaren Ikurriña beteranoak ere, 100 urte bete zituen oraintsu.
- Gizartearen motibazio falta eta nagitasuna. Erronka honetarako prest ez egotea.
- Bai erkidegoek eta bai ideologiek, gaur egun bezala bereiztuak mantentzea nahi izatea.
- Alderdi politiko eta gizarte eragileen babes nahikoa ez lortzea.
- Egitasmoak bezainbesteko hedapena ez izatea. Egiturarik edo bitarteko faltagatik.
- Beste beharrezan premiazkoagoak azaltzea. Premiazko beharrezanak, lehentasunezko beharrezanak atzeratzen dituzte.
- Okerreko interpretazioak zabaltzea.
- Egitasmo hau zuzendua dagoen sektore batzuei, batez ere autonomistei, guztiz ez gogobetetzea
- Behar den azkartasunez ez hedatzea eta ahanzturan gelditzea

Azken finean, atzerrian euskaldunek izan duten harrera ona eta era berean Euskal Herrira etorri direnei egiten dieguna aintzat hartuz, naziogintzan bilduko gaituen Ikurriña baten eraldaketan parte hartzea denok gonbidatzen gaitu Ikurriña berri baten egitasmo honek. Atzerrian bere jatorria eta esanahia harro azaldu ahalko genukeen bandera bat, armarririk gabekoa, baketsua azken finean. Garen bezalakoak.

Euskararen herrigintzan lan asko egiten ari da, eta horretan laguntzeko lanabesak, erremintak behar dira. Esaterako, kirol talde batek bere koloreak defenditzen dituen bezala, adore, kemen eta indarra emateko ikurrak, banderak, logotipoak eta anagramak erabiltzen dira bitarteko bezala. Gutxi izanik, arraunean denok norabide batean boga egiteko sakabanatu egiten gaituzte

gaur egun erabiltzen ditugun ikur desberdinek. Egitasmo hau beraz, ahal denik eta zabalena eta malguena eratu nahi izan da, ahalik eta herritar gehien biltzeko asmoz eta aldi berean arrunta eta sinplea. Txukuntasuna bilatuz, egitura erraz ulertzekoa, bai herritarrei begira, bai horren garrantzizkoa den komunitate internazionalari begira.

Beste aldetik, gaur egungo Ikurriña nazio Ikurriña izatetik Euskadi soilik ordezkatzeko atzera pauso zail hori egiteak, aurrera jotzeko bulkada emateko balio lezake. Esaera herritar batek dioen bezala, *tortilla egiteko arraultzak apurtu behar dira*, erabaki bortitza den arren.

Dena dela ere, Ikurriña berri bat sortzeko gai soil bezain konplexu hau jendearen ahotan jartzeak berak, eta Zelanda Berrian egin zuten bezala (ikus eranskinak) Ikurriña aukeratzeko herri galdeketa egiteak berak, euskal gizartea mugituko luke eta eztabaida baketsuak bezain aberatsak sortuko beharko lituzke. Azkenean edozein dela ere aukeratutako Ikurriña, bai gaur egungoa dela edo beste proposamen egokiago bat dela.

Etorkizunari begira EAE-CAV, Nafarroa eta iparraldeko biztanleen gehiengoa identifikatuta sentitu daitezkeen ikur batek batasunaren indarra sortuko luke. Gehiengoa izatera lortu behar den batasun batetik hasita, autodeterminaziotik igaroz, estatu independente bat eratzeko bidean, indar biltzaile gerta daitezkeen Ikurriñak erakusteko gogoz aurkezten da egitasmo hau.

Historian zehar kanpoko interes desberdinengatik baina baita barruan hitztegiten ez dugulako ere, galzorian egon da euskeraren altxorra. Gutako bakoitzaren eskuetan daukagu bere biziraupena egunerokoan, baina komunitate kohesionatu bat bezala funtzionatzean, ziurtatuagoa bere etorkizuna.

Apurka apurka, ahal denik eta herritar gehien norabide berean batuaz. Lan honen helburua euskal herritarrok biltzea, euskaltzaletasuna sustatea eta munduaren begietan norabide baterantz goazela adieraztea litzateke. Ibilgailuen keinukariarekin (intermitenteekin) alderaketa eginez, keinukaria bidearen helburura heltzeko ez da beharrezko tresna baina bai era txukunean trafikoan integratzea laguntzen duena. Errepideko bidegurutze eta aurreratzeetan gainontzeko bidaideak ohartarazteko, bai norabide eta norantza berberean doazenak bai kontrakoan.

Elkarbizitza osasuntsuago bat lortzeko saiakeran, munduaren ikuskera desberdina duten belaunaldi berrientzako eta euskal munduarentzako ate bat irekitzen da mota honetako egitasmoekin. Euskara dakiten, ikasi duten eta ikasten ari direnek harrotasunez goratu lezaketen bandera berri abegikor bat sortzean, azken hauek ere bait lukete Ikurriña berri honetako alde gorrian, bere ekarpena adierazirik euskal hitzunen komunitatean. Adibide aparta dugu Jon Maia bertsolaria, poesiaz beteriko hainbat abesti ezagunen hitzak idatzi dituen, bere azken liburuari "*Herri bihurtu den kantu bat gara*" izenburua jarri diona.

Euskal Herriko hainbat lekutan ehundu eta zatiek in jositako oihal bat...